

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Behin betiko onestea 2019ko aurrekontua

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 169.1 artikuluan eta Arabako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onesten da 2019ko aurrekontua, ez baita inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu hasierako onespena ematen zion erabakiaren aurka. Hona hemen laburpena kapituluka:

Gastuen egoera

KAPITULUA	EURO
1. Langile gastuak	166.721,45
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	153.419,53
3. Finantza gastuak	3.513,88
4. Transferentzia arruntak	54.710,62
6. Inbertsio errealak	568.168,70
7. Kapital transferentziak	14.500,00
8. Finantza-aktiboak	1.500,00
9. Finantza-pasiboak	17.369,30
Gastuen egoera, guztira	979.903,48

Diru sarreraren egoera

KAPITULUA	EURO
1. Zuzeneko zergak	256.932,63
2. Zeharkako zergak	16.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	36.510,00
4. Transferentzia arruntak	170.782,00
5. Ondare bidezko diru sarrerak	2.550,00
7. Kapital transferentziak	497.128,85
Diru sarreraren egoera, guztira	979.903,48

Halaber, udal honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da 1. eranskinean:

1.- Karrerako funtzionarioak

Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailea; kopurua: 1.

Administrazio egoera: bitartekoa

Taldea: A

Destino-osagarriaren maila: 26

Dedikazio erregimena: osoa

Titulazioa: Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, edo Ekonomia, Aktuariatza eta Finantza Zientzietan lizentzia edo dagokion gradua.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Lantokia: udaletxea.

Betetzeko era: lehiaketa

Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea; kopurua: 1.

Administrazio egoera: aktiboan

Taldea: D

Destino-osagarriaren maila: 18

Titulazioa: Eskola Gradua edo baliokidea.

Lanaldia: osoa.

Hizkuntza eskakizuna: 2. Derrigortasun data: 2005ko urtarrilaren 1a.

Lantokia: udaletxea

Betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

2.- Lan kontratu mugagabeko langileak

Lanpostuaren izena: garbitzailea.

Administrazio egoera: aktiboan

Taldea: E

Destino-osagarriaren maila: 8

Titulazioa: Eskola Ziurtagiria edo baliokidea.

Lanaldia: partziala

Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

Lantokia: udal eraikinak

3.- Udalbatzako kideen ordainsariak eta diru esleipenak

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hauek dira udalbatzak onetsitako aurrekontuari buruzko udal araudian jasotzen diren kalte-ordainak eta bileretara joategatiko zenbatekoak:

Alkatetza

Alkateak urtean 28.016 euro jasoko ditu alkatetzari eta udal gobernuari dagozkion lanak betetzeagatik.

Zinegotziak

Osoko bilkura, bilera eta batzordeetan parte hartzeagatik, zinegotziek, alkateak izan ezik, 60 euroko kalte-ordaina kobratuko dute konpentsazio bezala.

Argitaratu egiten da, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 2/2004 Foru Arauak 15.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Erabaki honen aurka, zeinak behin betiko onartzen baitu udalaren aurrekontu orokorra, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Zambrana, 2019ko apirilaren 11

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI